



ARKU ATLANTIKOKO GANBERAK  
CÁMARAS DEL ARCO ATLÁNTICO  
CHAMBRES DE L'ARC ATLANTIQUE

## **Arku Atlantikoko**

### **Merkataritza Ganberen Adierazpena**

Bilbon, 2023ko ekainaren 21ean

Arku Atlantikoko Merkataritza Ganberok (Portugalgo iparraldea, Galizia, Asturias, Kantabria, Burgos, Nafarroa, Euskadi eta Akitania Berria) **geure lankidetzaren indartzeko premia berbera** daukagu, gizarte moduan gure erantzuna behar duten erronka handi hauei aurre egin ahal izateko: globalizazioa, iragaitza energetiko zein ekologikoa, iragaitza teknologiko zein digitala eta erronka soziodemografikoa, besteak beste. Horri guztiorri esker, tokian tokikoaren indarraren bidez, lehiakorragoa, jasangarriagoa, dinamikoagoa, irekiagoa eta lotuagoa den lurraldea izango da Arku Atlantikoa. Azken batean, lurralde erakargarriagoa izango da, eta oparotasun handiagoa zein bizi-kalitate hobea eskainiko dizkie bertako herritarrei.

Hori guztia dela eta, hemen gauden merkataritza-ganberok honako hauxe adierazi nahi dugu:

**Kezkatuta gaude** Arku Atlantikoaren izaera periferikoagatik lehiakortasuna, lurralde moduan daukagun erakargarritasuna eta eragiteko gaitasuna galdu ditzakegularako. Jakin badakigu globalizazioaren ondorioz jarduera ekonomikoaren eta berrikuntzaren grabitate-zentroa Atlantikotik Pazifikora lekualdatzen ari dela eta, Europako testuinguruan, herrialde berriak sartu direnez, gero eta ekialderago bideratzen ari dela pisua. Bestetik, horren ondorioz, baliteke interes atlantikoak bigarren mailan geratzea edo Europako instituzioek behar bezala kontuan ez hartzea.

**Gure asmoa da** Arku Atlantikoko eskualdeok jorratu behar ditugun erronken inguruko **hausnarketarako eta lankidetzarako foroak sortzea**, ziurgabetasuna ezaugarri bereizgarri daukan ingurune lehiakor eta sozial berrian lekurtzeko. Bertan, hain zuzen ere, honako bektore hauek funtsezkoak dira lurraldeetako oparotasuna sustatzeko orduan: talentua, iragaitza energetikoa, eraldaketa digitala, azpiegitura fisiko zein adimendunak eta konektibotasuna. Gure asmoa da beste eragile nabarmen batzuekin lan egitea, atlantikoko interesak hobeto defendatzeko, baina, batez ere, Itsas Eskualde Periferikoen Konferentziako (CPRM) Arku Atlantikoko Batzordearekin.

**Argi eta garbi daukagu** bideratzaileak eta suspertzaileak izango garela, inplikaturako eragile guztien partaidetzaz sustatzaile moduan zehaztutako jarduketak eta proiektuak abian jarri ahal izateko eta, horrela, oparagoa, inklusiboagoa eta jasangarriagoa den eremurantz aurrera egiteko.

**Bat gatoz** joan den maiatzaren 23an Cardiffen (Gales) egindako Arku Atlantikoko Batzordeko adierazpenean azaltzen diren ondorioekin, eta aldeko erantzuna ematen diogu eragile sozioekonomikooi inplikatzeke egin diguten deiari. Gure ustez, ganberok zeregin nabaria eduki dezakegu Makroeskualde Atlantikoaren eraketan, gure izaeragatik, interes orokorren defentsa ordezkatzegatik eta gure lurraldeen nahiz gure enpresen lehiakortasunaren hobekuntzaren aldeko jarduketak garatzeko daukagun gaitasun egiaztatuagatik.

Hemen gauden merkataritza-ganberok gainditu behar ditugun erronka nagusien diagnostiko partekatua egin dugu:

#### 1. **Konektibotasuna eta eragiteko gaitasuna.**

Erronka honek zerikusia dauka gure posizio periferikoarekin eta pisu demografikoarekin. Geografiaren aldetik, garapen-ardatz handietatik kanpo gaudenez, egoera horretan konektibotasuna da lehiakortasunaren giltzarrietakoa. Azpiegiturek eta logistika adimendunak hurbildu egiten gaituzte.

Bestetik, eremu periferikoek eragiteko gaitasuna galtzeko joera dutenez, “gurpil zoroan” erortzen dira: zenbat eta gaitasun txikiagoa eduki eragiteko, orduan eta periferikoagoa izango da eremua; eta, horren ondorioz, zenbat eta periferikoagoa izan, orduan eta nabaritasun txikiagoa izango du, eta eragiteko gaitasun txikiagoa edukiko du. Dinamika hori hausteko formula “eskualdeko lankidetzatza” da, horri esker nabariagoak izango garelako, izaera estrategiko handiagoa edukiko dugulako eta eragiteko gaitasun handiagoa izango dugulako eta, horrela, geure ahotsa iritsiko delako gure lehiakortasunean eragina duten erabakiak hartzen dituzten instituzioetara.

#### 2. **Dibertsifikazioa eta ekintzailtza.**

Erronka honek zerikusia dauka emankortasuna eta, horren ondorioz, BPGd zein herritarren ongizatea areagotzen lagunduko diguten balio erantsi handiagoko jarduerak abian jartzeko premiarekin. Eraldaketa handiek (ekologikoa, digitala eta demografikoa) eta zenbait hornikuntza-kateren birkokapenak eskaintzen dizkiguten aukerei atera behar diegu onura. Bestetik, elikagaien segurtasuna, osasunaren zainketako burujabetza eta ekonomia urdina dira ustiatu behar ditugun aukera-arlo berriak. Hori lortzeko, funtsezkoa da ekintzailtzeako ekosistema sendoa edukitzea.

### 3. **Jasangarritasuna, berrikuntza eta nazioarteko ezarpena.**

Erronka honek zerikusia dauka hain berritzailea ez den ekoizpen-sarearekin, irekiera-maila txikiagoarekin eta, Europako batezbestekoaren aldean, enpresek duten tamaina txikiagoarekin. Aukera berriei atera behar zaie onura, baina, horrez gain, gaur egungo ekoizpen-sarea sendotu eta garatu behar da. Garapen hori erdiesteko, haien lehiakortasuna hobetu behar da, eta, horretarako, hiru suspergarri handi ditugu: jasangarritasuna, berrikuntza eta nazioarteko ezarpena. Era berean, garapen hori lortzeko, sektore publikoak behar besteko konpromisoa hartu behar du ETE-ei prozesu horretan laguntzen dieten berrikuntza-politikekin.

### 4. **Erronka demografikoa.**

Erronka honek zerikusia dauka biztanleen zahartzapenerako joera argiarekin: jaiotza-tasa txikiagoak eta bizi-itxaropen handia. Inguruabar hori, beraz, benetako erronka da geure ongizate-estatuari eusteko orduan, baina garapenerako aukera ere izan daiteke.

### 5. **Talentua: lurralde erakargarria.**

Erronka honek zerikusia dauka talentua erakartzeko eta eusteko premiarekin, aurreko erronka guztiei erantzuna eman ahal izateko. Ingurumen erakargarria eta bizi-kalitate ona dauzkagun arren, proiektu profesional erakargarriak eduki behar ditugu.

Hemen gauden ganberok behar besteko konpromisoa hartzen dugu, partekatzen ditugun erronkekin zerikusia duten hurrengo arloetan geure artean eta inplikaturako eragile guztiekin lan egiteko:

#### 1. **Konektibotasunaren hobekuntza eta eragiteko gaitasuna.**

##### 1.1 **Konektibotasunaren hobekuntza (garraioa, logistika eta sareak)**

Garraio-azpiegitura

- Behar besteko ahaleginak garatzea, tren bidezko Igarobide Atlantikoa garaiz osatzeko (oinarrizko sareari dagokionez, 2030erako) eta botila-

lepoak zein maila galduak desagertzeko, Frantzia eta Espainia arteko eta Espainia eta Portugal arteko mugetan, batez ere.

- Tren bidezko lotunea eta Kantauriko Erlaitzeko intermodalitatea sustatzea eta egokitzea eta logistika aurreraturako sistema garatzea.
- Portuen arteko lankidetzarako estrategia eta itsas autopisten garapena suspertzea, gure lurraldeak lotzeko eta Europarekin dugun lotunea are estrategikoagoa izateko. Behar besteko estrategia ezartzea, gure portuek EBko autonomia energetikoa sustatzen lagundu dezaten.

#### Azpiegitura energetikoa

- 2030. urteari begira, hidrogenoaren azpiegiturak Europa mailan dituen interkonexioen mapan, HiWest igarobideko interkonexio atlantikoa agertzea.
- Ibilgailu elektrikoa kargatzeko eta hidrogenoa kargatzeko sarea hedatzea, pertsonen nahiz salgaien mugikortasun jasangarria sustatzen duen igarobidea osatu ahal izateko.

#### Azpiegitura digitala

- 5G-ko sareak eta zerbitzuak hedatzea, honako sektore hauetan lekuratu ahal izateko: 4.0 industria, ibilgailu konektatuak eta autonomoak. Era berean, banda zabaleko sarea hedatzea landaguneetara eta gune isolatuetara.

### 1.2 Eragiteko gaitasuna

- Arku Atlantikoko Ganbera moduan, batera eta koordinaziopean lan egitea lankidetzaren horren euskarri iraunkorra izango den erakundearen bidez (Arku Atlantikoko Merkataritza Ganberen Elkarte) eta, horretarako, lehendik dauden lankidetzaren egiturei balioa ematea (Santiago Bideko Merkataritza Ganberen Elkarte, Bihartean, CCI Pau Béarn...).
- Markako estrategia bateratua garatzea, Arku Atlantikoaren berriazko ezaugarriak hobeto zehazteko eta agerian jartzeko.
- Makroeskualde Atlantikoaren sorrerari babes irmoa ematea hori sustatzen duten instituzioen eta, batez ere, "Arku Atlantikoko Batzordearen"

koordinaziopean. Horretarako, gure jarduketa-eremuan dauden ekintza guztiak egitea, urte hau amaitu baino lehen Europako Kontseiluak proiektu hau onartu dezan.

## 2. Dibertsifikazio jasangarria eta ekintzailletza.

### 2.1 Dibertsifikazioa

- Honako honexekin dugun konpromisoa bikoiztea:
  - iragaitza energetikoa, itsasoko energia berriztagarrien zein hidrogeno berdearen balio-kateak integratzeko eta, aldi berean, ekonomia zirkularra suspertzeko.
  - iragaitza digitala, zerbitzu aurreratuen garapenerako aukera moduan.
  - ekonomia urdina eta itsasoko baliabideek eskaintzen dituzten aukeren garapena, arrantza nahiz akuikultura jasangarriak eta itsas industriak bultzatzeko.
  - erronka demografikoa eta zilarrezko ekonomia, adin handiko biztanleen premiengatik gero eta handiagoa den eskariari erantzuteko aukera moduan.
- 4.0 industriaren, balio-kateen birkokapenaren eta ingurune naturalaren babesarekin lotutako turismo jasangarriaren (enoturismoa, turismo geldoa...) aldeko apustua egitea.
- Elikagaien segurtasuna eta elikadura osasungarria sustatzen dituen elikagaigintzaren aldeko apustua egitea.
- Osasunaren arloan burujabetza europarraren aldeko apustua egitea.

### 2.2 Ekintzailletza

- Era bateko eta besteko aukera-arloetako jarduera berriak sortzeko sinergiak lantzea, ekintzailletzaren kultura sustatzea adin goiztiarretatik eta ekintzaileei balioa ematea.

- Ekintzailtzako ekosistemak garatzea lankidetzaren publiko pribatuaren bidez eta, bertan, enpresa sustatzaileak inplikatzea ekintzaileen garapenean (hornitzaileen garapena...), baita unibertsitateak zein zentro teknologikoak ere.

### 3. Jasangarritasuna, berrikuntza eta nazioarteko ezarpena.

#### 3.1 Jasangarritasuna

- Ekonomiaren eta, batez ere, energian intentsiboagoak diren sektoreen deskarbonizazioa sustatzea.
- Energiaren kudeaketa, eraginkortasun energetikoa, autokontsumoa, mugikortasun jasangarria... indartzea.
- Uraren eta hondakinen kudeaketa eraginkorragoa bultzatzea.

#### 3.2 Berrikuntza

- Lankidetzarako mekanismoak ezartzea berrikuntzako politiketan, gaitasun zientifiko zein teknologikoen eta haien balorizazioaren arteko sinergieiei ahalik eta onura handiena ateratzeko.
- ETE-ek estrategiarako zein berrikuntzarako duten gaitasuna bultzatzea era bateko zein besteko eragileen laguntzaz eta, horretarako, esperientziak partekatzea eskualdeen artean. Kudeaketa aurreratuari begira ESG osatzen duten ereduaren erabilera sustatzea.
- Berrikuntzarako eta inbertsioetarako baliabide pribatu eta publikoak handitzea haien garapena sustatzen duten aktiboetan.
- Enpresen tamaina handiagoa bultzatzea, enpresaren eta merkatuaren ezaugarrien arabera garrantzitsua denean, eta lankidetzak nahiz aliantzak ezartzea elkarrean / klusterren artean eta enpresa sustatzaileen zein ETE-en arteko lankidetzaren bidez.

#### 3.3 Nazioarteko ezarpena

- Nazioarteko ezarpena sustatzea eta, horretarako, merkatu berriak nahiz kanpoko ezarpenak arakatzea.
- Inbertsioak Arku Atlantikorantz erakartzeko prozesuan lan egitea.

#### 4. **Erronka demografikoa.**

- Zahartzapen aktiborako estrategiak sustatzea eta adinekoen esperientzia osoari balioa ematea.

#### 5. **Talentua: lurralde erakargarria.**

- Behar besteko suspergarriak eta politikak abian jartzea, batez ere gazteentzat erakargarria den eskualdea sortzeko eta, horrela, langabetuen enplegarritasuna suspertzeko eta lanpostu hutsak betetzeko.
- Profil profesionalak eskarira egokitzea, bizitza osorako prestakuntza sustatzea eta enpresak pertsonen gaitasunen garapenean inplikatzeko.
- Pertsonen enpresa-politika berrikuntza bultzatzea. Horretarako, belaunaldi berrien eskaerak kontuan hartzea, belaunaldien arteko txanda aintzat edukitzea eta talentu seniorrari balioa ematea.
- Lankidetzak sustatzea eta trukeak bultzatzea Arku Atlantiko osoko unibertsitateen eta lanbide-heziketako zentroen artean.

Azkenik, partekatutako erronken arabera ustezko lankidetzak zehaztutakoan, hemen gauden ganberok behar besteko konpromisoa hartzen dugu, lankidetzak lehenesteko, ekintza-plana egiteko eta ezartzeko eta, horren bidez, Arku Atlantikoaren eraldaketan aurrera egiteko, eremu erakargarriagoa eta oparagoa izan dadin.

Hori berori sinatzen dugu Bilbon, 2023ko ekainaren 21ean.